



EGUBERRIETAKO 16 ARGİ-GIRLANDA AZTERTU DITUGU

Seguruak dira eta elektrizitate gutxi kontsumitzen dute baina ez dute informazio nahiko ematen

BATEZ BESTE, 0,30 EURO KOSTATZEN DA EGUBERRIETAN GIRLANDAK PIZTUTA IZATEA. EDOZEIN ELEKTROTRESNAK 'STAND BY' EGOERAN GASTATZEN DUENA BAINO GUTXIAGO

Koloretsuak dira eta jai giroan murgiltzen gaituzte baina elkarte ekologistek aspaldi esan dute hiriak giraldekin argizatzea gehiegizko elektrizitate gastua dela eta ingurumenari kalte egiten diona, gainera. Kanean ezezik askok etxean ere nahi dituzte, osterara, eta komeni da zenbat gastatzen duten begiratzea eta seguruak diren jakitea. Izan ere, aurtun Espainiako Kontsumo Institutu Nazionalaren alerta sareak 30 giralanda baino gehiago erretiratu ditu merkaturatik, seguruak ez zirelako. Segurtasuna, beraz, eta elektrizitate gastua, izan ditu kontuan CONSUMER EROSKI-k hainbat Kallt, Mundo, Galvas, Reila Lights, Noël Art, Näve eta Diana etxetako 16 giralanda aztertzerakoan. Hamaseititik zortzi etxe barruan erabiltzekoak ziren eta beste zortzirik barruan zein kanpoan erabil daitezkeenak. Hamabi ziren giralanda (kable elektrikoarekin batuta errenkadan doazen bonbilak), beste hiru argi-errezelak (kable elektrikoarekin zintzilik dauden giralanda) eta azkena bonbilladun hodia (plastikozko da eta barruan bonbilak dituena). Bederatzi giralanda zuten argi intermente-

teak eta batek ezik denak ematen zuten aukera itzali eta piztu arteko denbora tarteak aukeratzeko. Galvas etxeko giralanda eta Kalit etxekoak hamar bonbilla zituzten eta 216, berriz, Mundo Flex etxekoak. Lau giralanda bakarrik erabiltzen zituzten LED izeneko lanparak (64 bonbilla dituen Kalit giralanda, 10 bonbilla dituen etxe berekoak, 50 bonbilla dituen Noël Art etxekoak eta 60 bonbilla dituen Reila Lights etxekoak). LED lanparak ez dira besteak bezain kutsakorrak, gehiago irauten dute eta ohiko bonbilak baino gutxiago gastatzen dute.

Eguberrietako giralanda seguruak direla esan genezake azterketa egin ondoren eta gutxi gastatzen dutela, nahiz eta denek hobetu beharko luketen informazio alorrean. Preziorik ezin dugu eman, Eguberrietan baino saltzen ez direnez 2008an erosi genituelako eta orduko prezioetatik oraingoetara alde nabarmenak egon daitezke. Ezin, beraz, kalitate-prezio harremanean zein gailentzen den esan.

Aztertu ditugun 16 giralanda hauetako batek ere ez du etiketa ondo emana. Bi arau hausten dituzte denek ere, segurtasun elektrikoari dagokiona (UNE-EN 60598-1) eta argia ematen duten giralanden araua (UNE-EN 60598-2-20). Esaterako, hamaika giralanden etiketatan ikusi dugu letra 2 milimetro baino txikiagoa dela. Näve etxeko giralanda, bestalde, alemanez ematen zuen informazioa baina ez gartzelaniaz (behartuta daude horretara Espainian

salduko badira). Diana etxeko giralanda kablean egon behar den informazioa falta zuen eta bere paketearen ez zatorren arauak agintzen dituen informazio osoa. Disney etxeko printzesen irudiak erakusten dituen Galvas giralanda segurtasun arloko zenbait aipamen falta zitzaizkion. Beste hiru produktutan transformadoreak ez zuten potentzia aipatzen (Kalt errezelak, 40 bonbiladun Kalt giralanda eta Näve giralanda).

Azkenik Reila Lights argi-errezelaren kasua aipatu behar. Berez, produktu hau etxe barruan bakarrik erabil liteke. Baina kutxan bost argazki datoz eta bost argazki horietan agertzen dira giralanda etxetik kanpo, teilatu, leiho edo kaleak apaintzen. Argazkiek kontsumitzaileari okerreko irudia ematen diote eta horrek segurtasun arazoak eragin ditzake, ezin baita inolaz ere kanpoan erabili etxe barrurako eginda dagoen giralanda.

ARRISKU GABEKO APAINGARRIAK

Produktu hauek seguruak zirela bermatzeko era guztietako probak egin genituen. Alde batetik, isolamendu elektriko probatzeko tensio elektriko eman genion lokia eta erabiltzeak heltzen duen kable zatiari, lokia eta transformadorea batzen dituenari (giralanden erdiak zeukaten) eta, azkenik, lokia eta kablearen arteko zatiari. Bestetik, kanpoko eragileen aurrean babestuta dauden frogatu ge-

Laburbilduz

- ▶ Eguberrietako 16 argi-giralanda aztertu ditugu. Horietako lau ziren argi-errezelak eta bakarrak zeukan hodi itxura.
- ▶ 16 giralanda horietatik zortzi kanpoan erabiltzeko modukoak ziren eta laborategiko frogak erakutsi dute ongi eginak daudela hautsik ez sartzeko eta ura erortzen bazaie ongi eusteko.
- ▶ Giralanda guztiek gaintitu zituzten segurtasun elektriko bermatzeko frogak baina etiketa denek zuten gaizki emana.
- ▶ Batez-beste, giralandek 25 watt kontsumitzen dituzte. Eguberrietan baino ez direnez jartzen urtean 0,30 zentimo kostatzen direla kalkulatu dugu eta atmosferara, 0,6 kg Co₂ botatzen dutela.
- ▶ Ingurumenari zor diogun errespetatuagatik apaingarri hauek neurrian erabiltzea komeni da eta elektrizitate erabiltzen ez dutenak aukeratzeko, ahal den neurrian. Ezingo balitz, bonbilla gutxi dituztenak edota LED bonbilak erabiltzen dituztenak dira hobeak ingurumenarentzako.

Barruan Barnean

16 EGUBERRIETAKO ARGI-GIRLANDA



MUNDO ICICLE 0080701
Argi zuridun errezela

Bonbila gehien dituen bigarrena, 180. Intermitenteak dira. Etiketari, letraren tamaina arauak eskatua baino txikiagoa da. Kanpoan erabil daitezke.



KALLT TYP J0635
Bola zuridun errezela

LED lanparak ditu. Transformadoreak ez du zenbat watt dituen esaten. Kanpoan erabil liteke. Bonbillako elektrizitate gutxien gastatzen duena.



NÄVE 5242
Apaingarriak dituen girlanda

Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Transformadoreak ez du esaten zenbat watt dituen. Alemanieraz agertzen dira zenbait segurtasun aipamean baina ez gaztelaniaz.



KALLT TYP J0501 SKINA
Bonbila zuridun girlanda

Transformadoreak ez du potentzia adierazten (zenbat watt). Kanpoan erabil liteke.



DIANA 8510045
Pinu adarren itxura duen girlanda

Intermitentea da. Kablean beharko lukeen etiketa falta zaio, segurtasun arauena. Kanpoan erabiltzeko egokia da.



NÄVE 5134
Koloretako izardun girlanda

Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Transformadoreak ez du ze potentzia duen adierazten. Zenbait segurtasun aipamen alemanieraz ageri dira baina ez gaztelera. Kanpoan erabil liteke.



REILA LIGHTS 41060101
Argi zuridun girlanda.

Intermitentea. LED lanparak ditu. Letra tamaina arauak dioena baino txikiagoa da. Bonbilla bakoitzekiko elektrizitate gutxien gastatzen duenetariko.



MUNDO 54021
Koloretako bonbiladun girlanda

Musika daukan barra. Bonbillak alda litezke. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Bonbilla bakoitzak gehien gastatzen duenetakoa.



MUNDO CORDÓN 0081012
Bonbila zuridun girlanda

Intermitentea da. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Kanpoan erabil liteke.



KALLT TYP J0633 GLÄNSA
Bola zuridun girlanda

LED lanparak ditu. Bonbilla gutxien duenetakoa, 10. Kanpoan erabil liteke. Transformadoreak ez du watt potentzia adierazten. **Elektrizitate gutxien kontsumitzen duena.**



REILA LIGHTS 81050305
Pazko loredu girlanda

Intermitentea. Kolore gorriko bonbilak ditu. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Kontsumo elektriko altuenetakoa du bonbilla bakoitzeko.




REILA LIGHTS 55174201
Argi zuridun errezela

Intermitentea. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Barruan erabiltzeko den arren, kutxan kanpoko irudiak agertzen dira. Elektrizitate gehien kontsumitzen duen bigarrena.



MUNDO FLEX 0161600/C
Argi zuridun mahuka

Intermitentea. Bonbilla gehien dituen, 216. Kanpoan erabil liteke. Elektrizitate gehien kontsumitzen duena, 80 watt.



NÖEL ART 64201
Argi zuridun girlanda

Intermitentea. LED lanparak ditu. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Bonbilla bakoitzak elektrizitate gutxien gastatzen duenetakoa.



NÖEL ART 64503
Argi zuridun girlanda

Intermitentea da eta bonbillak alda litezke. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da.



Galvas PHL-10L
Disney printzesen marrazkiak dituen girlanda

Hamar bonbilla ditu, alda litezkeenak. Segurtasun aipamenak falta ditu. Letra tamaina arauak esaten duena baino txikiagoa da. Bonbilla bakoitzari begiraruta gehien kontsumitzen duena.